

## **Orixe: batetik bestera jaioz geroztik**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-03-01: 25.

Nikolas Ormaetxea 'Orixe', Orixako Iriarte baserrian jaio zen 1888ko abenduaren 6an. Hirukia zen, eta herrian hiru anaientat inuderik ez zela eta, Huitzin hazi zuten.

Xabierreko jesuitetan sartu zen 1904ean eta 1907an Loiolara pasatu zen; nobiziatua eta humanitateak egin zituen bertan 1909 bitartean. Urte horretan, Burgoseko La Merced ikastetxean klasikoak ikasi zituen, grekoak eta latinoak bereziki. Burgosen erretorika 1911n bukatu eta Oñan hiru urteko filosofia ikasketak egin zituen. Maisutza aurreko ikasketak 28 urterekin amaituak zituen, 1914ean.

Berak "zazpi urte beltzak" deiturikoak etorriko ziren ondoren. Jesuitek hiru urteko maisualdia egin ohi badute ere, Orixek sei egin behar izan zituen, Comillas, Carrión, Tuter eta Xabierren. Xabierretik, berriz, etxera bidali zuten. Berak ere ez zuen inoiz garbi jakin izan zergatik.

Euskalgintzari loturiko lanean egin zituen ondorengo urteak. Bilbon, 1923tik 1928ra Euskaltzaindian, R.M. Azkue eta Olabideren ondoan, 1928tik 1931ra bitartean 'Euzkadi' egunkariko euskal orrialdeen zuzendari izan zen.

Orexa jaioterrira bildu zen 1931n 'Euskaldunak' poema nazionala lantzeko. Gerra piztu zenean San Kristobaleko gartzelan sartu zuten sei hilabetez. Handik irtendakoan, Iparraldera egin zuen ihes 1938an, berriro atxilotuko ote zuten beldurrez.

Donibane Lohizunen (1938-1940), Saubion (1940-1943), Betharraman (1943-1946), Bidarrain (1946-1948) eta Donibane Lohizunen berriz ere (1948-1950) bizi izan zen erbestealdiko lehen urteetan. 1950ean Ameriketara jo zuen: sei hilabete Guatemalan eta gainerako guztia El Salvadorreko Zaragoza hirian.

1954ean itzuli zen Euskal Herrira eta Lazkaon bizi izan zen lehendabiziko bi urteetan. Gero, Tolosan eta Orixan. 1958tik aurrera bere iloba Joxe Mari Aranalderekin bizi izan zen, Araman lehenengo eta Añorgan gero. Azken herri honetan hil zen, 1961eko abuztuaren 9an. Euskal Herrian egin zituen, beraz, bere bizitzako azken zazpi urteak, baina "herriratzean, beste askori gertatu zitzaiena gertatu zitzaion hari ere" Iztuetak dionez: "Gerrate ondoko belaunaldi berriak jadanik bere sarrera egina zuen euskal munduan eta Orixeri arrotz eta arbuiagarri egiten zitzaizion luma gazte horien hainbat jokabide eta pentsamolde".